

A g u r r a

Behin batean esan zuen norbaitek inork ezin duela ezagutzen ez duen ezer maitatu, eta zuzen zebilen, alajaina. Gure iraganean bada hamaika motibo geure burua zertxobait maitatzeko, edo behintzat hobeto ezagutzeko. Gure iragan pertsonala geure buruaren zati banaezina den bezalaxe, halaxe du iragan kolektiboak oraina zuzentzen eta mugatzen, eta, memoriatik alde egiten utziko bagenio, geure izaeraren zati bat galduko genuke ezinbestean.

Dagoeneko hamabi urte badira Altzan memoria erreskatatzen dihardugula, eta lan horren isla da eskuartean duzuen "Altza, Hautsa Kenduz" sortaren seigarren zenbakia, XXI. mendeko lehena, izan ere. Norberaren pasadizo goxoak, artxiboetako datu hotzak, aspaldiko eta ez hain aspaldiko argazkiak... horiek denak eskaintzen dira eskuartean duzun artikulu bilduma aparta honetan, zeinek, beste garai batera ez, baina bizimodua bestela ulertzeko modu batera baikaramatza, agian gogorragoa, baina, dudarik ez, gizatiagoa ere bai.

Horrelako iraganak etorkizunik onena zor du. Altza etengabe hobetzen ari zareten guztioi, Altza eta altzatarren kezkak, arazoak, etorkizuna eta beste aztertzekeo ardura zuen gain hartu duzuenoi, etorkizun horrek ekar lezakeen onena opa dizuet.

Hurrengorarte.

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

S a l u d o

Dijo alguien una vez que nadie es capaz de amar aquello que ignora, y tenía razón. Y en nuestro pasado hay mil motivos para amarnos, o siquiera conocernos, un poco más. De la misma manera que nuestro pasado personal forma parte de nosotros mismos, nuestro pasado colectivo determina nuestro presente, y si lo dejáramos abandonado en el olvido, perderíamos irremediabilmente parte de nuestra propia personalidad.

Fruto del trabajo de rescate de la memoria que llevamos a cabo en Altza desde hace ya doce años, tenéis en vuestras manos el sexto volumen de la serie "Altza, Hautsa Kenduz", el primero de este siglo. Cálidas vivencias personales, fríos datos de archivos, entrañables fotografías... ven la luz en esta magnífica colección de artículos que nos retrotraen, más que a otra época, a otra manera de afrontar la existencia, probablemente más dura, pero también, en buena parte, más humana.

Un pasado así merece el mejor de los futuros. A todas las personas que constantemente estáis mejorando Altza, a todas las personas que os preocupáis de su estudio, de sus problemas, de sus retos y de tantas otras cosas más, de su vida, en definitiva, os deseo todo lo mejor que pueda deparar ese futuro.

Hasta pronto.